

**19. ORDENANTZA FISKALA, ERANDIOKO UDALAK ESKAINITAKO KULTUR ZERBITZUEN GAINEKO TASAK ARAUTZEN DITUENA****I. XEDAPEN OROKORRAK****1. ARTIKULUA**

Erandioko Udalak kultur zerbitzuak emateagatik eta jarduerak egiteagatik tasak ezarri ditu Ordenantza honetan xedatuaren arabera eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauan ezarritakoarekin bat etorritz.

**2. ARTIKULUA**

Ordenantza hau udal mugarte osoan aplikatuko da.

**II. ZERGAGAIA****3. ARTIKULUA**

Ordenantza honen zergagaia da Udal Administrazioak zerbitzua ematea edo gauzatzea, norbaitek egindako eskariari erantzuteko, edo norbanakoen egite edo ez egiteak zeharka eragin duelako.

**4. ARTIKULUA**

Honako kultur zerbitzu hauei aplikatuko zaie dagokien tasa:

- a) Lokalen erabilpena
- b) Fotokopia zerbitzua

**a) - Lokalen erabilpena**

Ondoren zerrendatuko diren udal lokalak erabiltzeagatik tasak ezarri dira:

**Josu Murueta kultur etxea.**

- Areto nagusia
- Areto urdina (bilera gela)
- Erakusketa aretoa

**Postetxe zaharreko lokala****Udaletxeko erakusketa aretoa (beheko solairua)****Azokako aretoa**

Tasa desberdinak aplikatuko ditu Udalak zerbitzu erabiltzailearen izaera kontuan hartuta:

- ✓ **Pertsona fisikoak:**



Norbanakoek egindako eskarien kasuan, tasa ordaindu beharra izango dute IV. atalean aurreikusitako salbuespenetan sartzen ez direnek.

Erakusketa aretoak erabiltzeko eskabidea egin dezakete norbanakoek, baina ez, ordea, bilera gelak eta areto nagusia erabiltzeko.

✓ **Pertsona juridikoak:**

Salbuetsita ez badaude, jarraian adierazitako tasa aplikatuko zaie eguneko:

Lokalak/erabiltzaileak	Pertsona fisikoak		Pertsona juridikoak	
	Egun erdia	Egun osoa	Egun erdia	Egun osoa
Erakusketa aretoa Josu Murueta	20,80 €	41,70 €	31,25 €	62,50 €
Areto nagusia	52,10 €	104,20 €	62,50 €	125,00 €
Areto urdina	31,25 €	62,50 €	41,70 €	83,40 €
Azokako aretoa	83,40 €	156,30 €	104,20 €	208,40 €
Postetxe zaharreko aretoa	15,65 €	31,25 €	26,05 €	52,10 €
Erakusketa aretoa Udala	15,65 €	31,25 €	26,05 €	52,10 €

b) - Fotokopiak biblioteka eta gazte-bulegoan

Udaleko materiala fotokopia daiteke eta ez liburu osorik ..... 0,06 euro/orrialdea, eta gehienez 30 orrialde

Partikularrek antolatzen dituzten jardueretarako eta emankizunetarako sarrera kobratzen badute, kuota ordaindu beharra izango dute, tarifa berezietan edo salbuespenetan sartzen ez badira.

Edozelan ere, udal lokala erabili nahi den eguna baino behintzat hamar egun lehenago egin behar dute eskabidea interesatuek udaletxeko erregistroan.

Gainera, behin betiko onarpena jaso behar dute, lokalak erabiltzeko araudian edo Kultura Sailak finkatutako irizpideetan aurreikusitakoaren arabera.

### III. SUBJEKTU PASIBOA

#### 4. ARTIKULUA

Ondorengo hauek dira, zergadun moduan, tasa honen subjektu pasiboak: aipatutako zerbitzuak eskatzen dituzten, edota zerbitzuen onuradun edo zerbitzuak ukitutakoak diren pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Zergei buruzko Foru Arau Orokorrak aipatzen dituen erakundeak.



## 5. ARTIKULUA

Ordenantza honetan araututako tasak ordaindu beharra dute Erandioko Kultura Sailak eskaintako zerbitzuak erabiltzen dituztenek eta antolatutako ekitaldietara doazenek baldin eta prezio publikoa ordaintzea eskatzen bada.

## IV. SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

### 6. ARTIKULUA - HOBARIAK

Goizeko saioak (8:00-15:00) %30eko hobaria izango du.

Egun erdiko akura 8:00etatik 15:00etara edota 15:00etatik 22:00etara izan daiteke. Erreserbak goizeko eta arratsaldeko tartea hartzen badu, egun osoko akura izango da.

Erandion erroldatuta dauden pertsona fisikoek eta Erandion egoitza soziala duten pertsona juridikoek %20ko hobaria izango dute.

### 7. ARTIKULUA - SALBUESPENAK

Salbuespen izango dira honako jarduera hauek:

1. Udalak sustatutako ekintzak, Udalak zuzenean edo kontratazioen bidez antolatuak eta udalak diruz laguntzen dituenak.
2. Ekimen pribatuak nahiz ekimen publikoak (baina ez Udalak) sustatutako ekintzak, betiere honako baldintzak betetzen badituzte:
  - ✓ Interes orokorrekoak izatea eta ez interesatu batzuen soilik.
  - ✓ Jendeari irekiak izatea.
  - ✓ Sarrera ordaindu beharrik ez izatea.
  - ✓ Erandioko Elkartearen Udal Erroldan inskribatutako elkarteak, irabazi asmorik gabekoak.

## V. ZERGA OINARRIA

### 8. ARTIKULUA

Zerbitzua gauzatzeko unitate bakoitza da zerga-oinarria, tarifen atalean azaldutakoaren arabera.

## VI. KUOTA

### 9. ARTIKULUA

Aurreko artikuluan adierazitako zerga-oinarriari dagokion tarifa aplikatuz finkatuko da kuota.

## VII. SORTZAPENA

**10. ARTIKULUA**

Zerbitzua edo jarduera gauzatu aurretik sortzen da tasa ordaindu beharra.

Lokalak erabili baino, behintzat, 48 ordu lehenago ordaindu behar da akurarengatik dagokiona.

**VIII. KITAPENA ETA ORDAINKETA****11. ARTIKULUA**

Kontzeptu bakoitzari dagokion kitapena egingo du Udal Administrazioak eta eskudirutan ordaindu beharko da kontzeptu bakoitzeko arau zehatzean ezarritako tarifaren arabera bidezkoa den zenbatekoa.

**IX. XEDAPEN GEHIGARRIA**

Aurrekontuei buruzko Foru Arauen bidez zein zuzenean aplikagarri diren bestelako arau edo xedapenen bidez Tasaren araubidean gertatzen diren aldaketek Ordenantza Fiskal honen aldaketa eragingo dute, besterik gabe.

**X. AZKEN XEDAPENA**

Honako Ordenantza hau 2008ko urriaren 29an izandako Osoko Bilkuran aldatu du Udalbatza Osoak, eta 2009ko urtarrilaren lehenetik sortuko ditu ondorioak, harik eta aldatzea edo indargabetzea erabaki arte. Ordenantza fiskal honen zati bat aldatuz gero, aldatu gabeko gainontzeko artikuluek indarrean iraungo dute.